

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda**

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Halaber, jakinarazten da martxoaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne, prest egongo direla trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko erroldaren ordainagiriak, borondatezko epean ordaintzeko.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2021eko martxoaren 4an kobratuko zaie.

Zerga horrek eragindako zergadunek ordainketa helbideratuta ez badute, Kanpezuko Udalak Santikurutze Kanpezuko banketxeetan dituen kontuetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga-zorrak, aipatutako epean, aurrez ordainagiriak jasota udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zergabilketako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2021eko urtarrilaren 19a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*